

ITURBIDE EGOITZA

**2017KO AURREKONTUA,
MEMORIA ETA
BETETZEKO ARAUAK**



Iturbide Egoitza Arrasateko Udaleko erakunde autonomoa

2017ko urtealdiko aurrekontua

MEMORIA

1.- Sarrera

Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren helburua da hirugarren adinekoen laguntza zerbitzua antolatu eta prestatzea, Iturbide Egoitza zaharren etxe mistoa izeneko zentroaren bidez (“Iturbide Egoitza”, aurrerantzean).

Erakunde autonomoa (lehen Fundazio Publikoa) 1984ko urtarrilaren 27an eratu zuen Udalak, Arrasateko Udalbatzarrak hartutako akordioz. Erakunde autonomoak nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun juridikoa dauka.

Gaurko egunean, ITURBIDE EGOITZA zaharren egoitza da erakunde autonomoaren zentro bakarra.

1.1. Zerbitzuak

ITURBIDE EGOITZAK eskaintzen duen egoitza zerbitzua honetan datza; denboran atenzio etengabea ematea, egokiturik erabiltzaileek eta haien familiakoek dauzkaten beharrei.

Zentroak orain 105 plaza baimendun ditu, horietatik 104 Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarturik eta bestea Arabako Foru Aldundiarekin.

Erakundeak egin beharreko funtzioak dira pertsonak zaindu eta haiei laguntzea eguneroko zeregin guztietan, haien ezgaitasuna dela eta ezin dituztenak haien kabuz egin, eta laguntzea norbere burua zaintzeko eta inguruekin harremanak izateko lanetan.

Zaintzen diren pertsonen bizi kalitatea hobea lortzea da ematen diren zerbitzuen azken helburua; haien oinarriko beharrianak bete eta ongizate fisikoa eta psikikoa, haien autonomia eta autoestimua eta norbere duintasuna hobetzea sustatu. Erabiltzaileen eskubideen errespetua da zentroaren jardun printzipioa.



1.2. Gutxieneko prestazioak

Urteko egun guztietako 24 orduetan ematen den zerbitzu honek gutxieneko prestazio hauek ditu:

- Erabiltzaileen beharrian fisiologiko, garbitasun, jantzi, garbiketa eta joan-etorrietan gainbegiratu eta/edo laguntzea.
- Jaiki eta lotara joatean gainbegiratu eta/edo laguntzea.
- Zerbitzuaren orduari dagozkion jatorduak prestatu eta ematea.
- Zentroaren garbiketa orokorra.
- Zerbitzuek nahiz erabiltzaileen arropa garbitu eta lisatzea.
- Jaten lagundu eta ohitura egokiak izan edo mantentzen lortzeko laguntzea.
- Medikazioa gainbegiratu eta banan-banan kontrolatzea, eta gaixotasun arrunteko aldietan edo osasun etxe batean sartu barik osasun beharrian berezietan zaindu eta laguntzea.
- Jatorrizko familia harremanak mantendu eta/edo errekuiperatzeko gainbegiratu eta laguntzea.
- Pentsatutako helburuak lortzen gainbegiratu eta laguntzea, haien autonomia eta garapen pertsonal sendotzeko bideraturik, beti ere, zentroko teknikariak eta/edo erabiltzaileei laguntzeko diharduten beste talde batzuek jarrita.
- Lekuz aldatzeko, norbere gauzak prestatzen gainbegiratu eta/edo laguntzea.
- Komunitateko zerbitzuak erabiltzen laguntzea (osasuna, aisia, denbora libre, etab).
- Familiartekoekin eta boluntarioekin harremanak, programa jakin batzuen bidez.
- Behar izanez gero, hil osteko arreta.
- Aipatu gabe egon eta egoitza zerbitzu batenak diren beste batzuk.

1.3. Iturbide Egoitzan zaindutako biztanleria

Iturbide Egoitza batez ere pertsona nagusi autonomoei zerbitzuak emateko pentsatua zegoen izaera mistoko zentroa da. Hala ere, gure ingurunearen gizarte errealitateak oro har eta Arrasatekoak bereziki ekarri dute sekulako aldaketa; bizilagun autonomoen arteko eta egoiliar mendeko eta mendetasun handikoen arteko proportzioa alderantziz jarri da, eta, hortaz, gaurko egunean plazen % 99 pertsona nagusi mendekoei betetzen dute.



2.- Iturbide Egoitzaren oraingo egoera, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean, abenduaren 5ekoa, jasota datorren eskumen egokitzeari buruzkoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Legeak (12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa) ezartzen du foru organoen eskumena izango dela (Gipuzkoako Foru Aldundia) 22. artikulua 2. atalean erregulatutako bigarren laguntzako gizarte zerbitzuak hornitzea, zerbitzu horien artean daude pertsona nagusientzako egoitza zentroak. Lege horren bigarren xedapen iragankorrek, eskumena banatzeko epea arautzen duena, xedatzen du euskal administrazio publikoek, legea indarrean sartu eta urtebeteko epean, legean jasota datorren eskumena banatuko dute. 12/2008 Legea indarrean sartu zen 2008ko abenduaren 25ean (EHAA-n argitaratu zen 2008ko abenduaren 24an; hortaz, urtebeteko epea bete zen 2009ko abenduaren 25ean. Edozelan ere, eskumena ez da banatu legez ezarritako epean).

2013ko urtarrilaren 28an Aldundiak Mendekotasunaren Arretarako Gipuzkoako Hobekuntza Plana (PMAD) aurkeztu zuen, eskumenen doiketari ekiteko proposamen gisa, etxeko laguntza zerbitzua eta adineko pertsonentzako udal egoitzei buruzkoa. Bertan, Gipuzkoako egoitzak bi multzotan sailkatu ziren, kudeaketa ereduaren arabera. Sailkapen horren baitan Arrasateko egoitza 1. multzoan kokatuko litzateke, hau da, kudeaketa zuzeneko egoitzen taldean.

Plan hori dela eta hainbat bilera egin ziren 2014an zehar eta auditoria lanak ere burutu ziren egoitzaz egoitza.

PMAD planean jasoriko egutegiaren arabera, 2014 urtean hainbat jarduera nagusi planteatzen ziren. Iturbide Egoitzari dagokionean, 1. multzokoa izaki, udalarekin akordioak lotzea proposatzen zen, 2016-2017an eskualdatzeari begira eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru ekarpena %15 murriztuz udal egoitzen defizita konpentsatzera bideratzea.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu zuten Foru Arauaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren baitan Kabia erakunde autonomoa sortzea, 16 udal zahar egoitzak izan direnak aurrerantzean kudeatuko dituenak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2016ko urriaren 11n erabaki du, alde batetik, onartzea Kabian sartuko diren zaharren egoitzen eredu asistentziala, eta bestalde onartu du integrazioaren egutegia eta horren plan ekonomikoa. Onartutako egutegiak xedatzen du Iturbide Egoitza Kabia erakundearen 2018ko 2. Seihilabetean sartuko dela.

Adierazitako guztia ikusirik, Iturbide Egoitzako 2017ko aurrekontua hipotesi honen arabera eratu da: urtealdian oraindik zentroa zuzenean kudeatuko du Arrasateko Udaleko erakunde autonomoak. Hala ere, aurrekontuaren zenbakiak 2016ko ekitaldiaren jarraipen irizpidearekin kalkulatu badira ere, Udalaren aldarrikapena izango da eskumenen egokitzapen prozesuan izaten ari den atzerapenak ezin duela udal interesen kaltetan izan, eta hortaz, bukaerako egoera logikoa izan beharko litzateke Udalak gasturik egin behar ez egitea Iturbideren defizit kontzeptuan.



3.- Iturbide Egoitzaren finantzabideak

Jarduera hasi zuenetik 1984an, Iturbide Egoitza hauekin finantzatu da funtsean: erabiltzaileen ekarpenez, Gipuzkoa Foru Aldundiak emandako diru-laguntzez eta Arrasateko Udalaren ekarpenaz, bat datorrena urtealdi bakoitzean sortutako defizitarekin. 2002 arte egoera definitu genezake araudian ez dela zehaztasunik izan, zentroari eusteko esku hartu duten bi administrazio publikoen erantzukizunei dagokienez. Aipatu aldi osoan gai hau arautu duten Gizarte Zerbitzuen Legeen garapen eskasaren ondorioz, nahastea eta zehazgabetasuna sortu dira arlo horretan administrazio publikoen erantzukizunei buruz.

2002. urteaz geroztik errealitate bihurtu da orain bizi dugun egoera. Batetik, Gipuzkoan Gizarte Zerbitzuak emateko erakundeen arteko Lankidetzaz Hitzarmena egin izanak eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren 151/2001 Dekretuak, gizarte zerbitzuetan egitekoak zehaztekoak, gizarte zerbitzuen eremu berria zehaztu dute. Orduz geroztik, pertsona nagusiei laguntzeko erantzukizun publikoa mendekotasun mailaren arabera izango da.

Horrela, 12/2008 Legea indarrean sartu arte indarrean zegoen araudiak xedatzen zuen, foru aldundien eskumena zela mendekotasuna duten pertsona nagusiei laguntzea, eta udalen eskumena zela pertsona autonomoen ardura. Irizpide hori, Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legean oinarriturik zegoena, pertsona nagusiek jasotzen dituzten programa eta baliabide guztiei aplikatu zekiekeen, besteak beste, egoitza zerbitzuen erabiltzaileei.

- Finantzaketa sistema: 2001etik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundia da administrazio publiko eskuduna, mendekotasuna duten pertsona nagusiei laguntzeko eremuan.
- Egoitza zentroetara sartzeko sistema eta erabiltzaileen ekarpen sistema nola ezarri: 15/2015 Foru Dekretuaren arabera (GAO 2015-06-22), 2015eko abuztuaren 1ean indarrean jarri zutena, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakitzen du erabiltzaile bakoitzak zenbat diruko ekarpena egin behar duen.
- Kontzertazioaren gehieneko prezioen sistema: Zentro bakoitzerako gehieneko prezio bat zehaztea da, mendekotasuna duen eta mendekotasun handia duen pertsonaren plaza bakoitzeko. Erabiltzailearen ekarpena sartzeko da prezio horretan, 15/2015 Foru Dekretuan arautzen dena; hortaz, erabiltzaileak benetan ordaintzen duenaren artean eta ezarritako gehieneko prezioaren artean dagoen aldea GFAk hartzen du bere gain.

Hainbat urtetan, arazoa zen GFAk proposatutako prezioak, Iturbide Egoitzako zuzendaritzaren iritziz, ez zirela nahikoak mendekotasuneko eta mendekotasun handiko plaza bakoitzak benetan duen kostuari aurre egiteko. Horren ondorioz, plaza bakoitzak defizita sortzen zuen eta Udalak bereganatu izan du defizit hori, nahiz eta ez izan Udalaren eskumeneko gizarte baliabide bat (mendekotasuneko eta mendekotasun handikoentzako egoitza plazak), lehen aipatu dugun 155/2001 Dekretuaren arabera.



Hala ere, 2005az geroztik, egoera aldatzen hasi zen. Prezio berriekin, nahiz eta oraindik nahikoa ez izan Iturbideko mendekotasuna eta mendekotasun handia zuen plazaren kostu erreala finantzatzeko, ezin da ukatu aurrera egin dugula helburua lortzeko, hau da, horiek finantzatzea osatu dadin zentroaren titularraren (Arrasateko Udalaren) ekarpenik gabe. Iturbideren aldetik ulertzen da eskumena ez duen administrazio batek (Udalak) zerbitzu bat ematean, ez lukeela gastua izan behar harentzat, administrazio eskudunak bereganatu beharko lukeela zerbitzuaren finantzaketa osoa, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Eta, bestalde, GFAk Gipuzkoako egoitza zentroetako zerbitzuei buruzko katalogoa onartu zuen, eta Iturbide egoitza behartuta dago horren irizpide, estatndar eta ratioen arabera zerbitzua eskaintzen. GFAko ikuskaritza zerbitzuak ere aplikatzen du katalogo hori, ikuskaritza bisitako gida moduan.

4.- 2017ko aurrekonturako jarritako helburuak

Gipuzkoako Foru Aldindiak, lehen adierazi bezala, onartu du jadanik Iturbide Egoitza Kabian sartzeko egutegia, 2018ko bigarren seihilabetean zehar burutu beharko litzatekeena. Hortaz, 2017an zehar gauzatzen hasi beharko litzateke foru administrazio eta Arrasateko Udalaren arteko hitzarmenak lantzeko lanak, Iturbide Egoitzari dagozkion atal partikularrei dagokienean, kontuan izanik dagoeneko gainera auditoretza lanak eginik daudela eta, beraz, egoitza bakoitzaren egoeraren argazki eguneratuagoa duela Aldundiak.

Egoitzan lan egiten duten talde ezberdinen artean, eta bereziki arreta zuzeneko horietan, “Pertsona Oinarrituriko Arreta Eredua” sustatzen jarraituko dugu, formakuntza eta zerbitzuen egokitzapenaren bidez, antolaketa egoiliarrek dituzten beharren arabera egokituz.

Iturbide Egoitzaren aspektu orokor zein 2017ko helburuak aipatu ondoren, orain dagokiona da zehaztasun handiagoarekin aldaketa nagusiak eta 2017ko Aurrekontuaren atal aipagarrienak aztertzea, bai gastuetan eta baita sarreren alorrean ere.



GASTUEN AURREKONTUA

2017ko urtealdiko gastuen aurrekontua guztira 3.401.526,21 €koa da.

Zerbitzuaren berezko ezaugarriengatik, aurrekontuaren %91 langileen gastuetarako da (norbere langileen gastuaz gain zerbitzuen azpikontratazioan egindako gastua sartzen da).

I. Kapitula	Kontu-sail guztiak	717.926,21 €
II. Kapitula	Klinika Laguntzaileak	1.435.000 €
	Harrera zerbitzua	100.000 €
	Garbiketa zerbitzua	360.000 €
	Sukalde zerbitzua	375.000 €
	Azpikontrataturako garbitokia	90.000 €
	Laguntza psikoz. Zerbitzua (azpikontrataturakoa)	15.000 €
GUZTIRA		3.092.926,21 €

I. Kapitula

Kontsignazioa: 717.926,21 €

Plantillako langileen soldatei buruzko aurrekontu aurreikuspena finkatu da Udaleko pertsonal sailaren irizpidea jarraituz. Honela, ordainsarien kontu-sailei %1eko igoera aplikatu zaie, eta 14 ordainketei dagokien gastua jaso da.

II. Kapitula

Kontu-sailik esanguratsuenen aspekturik nabarmenenak aipatuko ditugu orain:

Kontu-saila: 1-09-00-221-231-90-08 Egoiliarren sendagaiak

Egoitzak desfinantzatu diren eta koordaintzen diren sendagaien erosketa kudeatzen duen arren, honek ez dio propioki gastu bat suposatzen, gero egoiliar bakoitzari dagokion kopurua kobratzen baitzaio kuotarekin batera, eta beraz, bere diru-sarrera propioa du, kopuru berean, hau da, 29.000 euro. Dena den, aldaketak egon litezke, urte osorako aurreikuspenenetan eta kasu horretan sarreretan ere isladatuko litzateke igoera hori.



Kontu-saila: 1-09-00-227-231-90-04 Klinika Laguntzaile zerbitzua

Klinika Laguntzaileen zerbitzuan klinika laguntzaileen arduradun postua, 2014 urtean froga gisa egon zena, 2015 urtean kontsolidatu egin da, eta 2017rako mantentzea nahi da, ikusi baitugu emaitza onak eman dituela zerbitzuaren jarraipenean eta eman nahi den kalitatearen lorpenean. Hori horrela, arduradun honek solairuetako zerbitzuaren antolaketa egoiliarren beharretara egokitu du, eguneko guztirako orduak gutxitu eta aurreko urteetako kopuru berdinetara itzuliz, zerbitzua kaltetu gabe.

Bestalde, 2015eko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen kontratu berria. Lizitazio prezioa kontutan hartuta, eta 2016an zerbitzuaren bilakaera ikusita egin da 2017rako aurreikuspena.

Aurreikuspen horien arabera, klinika laguntzaileen zerbitzuaren gastua 1.435.000 eurotakoa izango dela kalkulatu dugu, aipaturiko salbuespen eta behin-behinekotasun guztiekin.

Kontu-saila: 1-09-00-227-231-90-99 Harrera zerbitzua

Harrera zerbitzuaren ordutegian ez da aldaketarik egongo. 2016ko gastu errealean oinarrituz, 100.000 euro inguru izango dira.

Kontu-saila: 1-09-00-227-231-90-05 Garbiketa zerbitzua

365.000 euro kalkulatu dira, 2016ko urte osoko gastu aurreikuspenean oinarrituz.

Kontu-saila: 1-09-00-227-231-90-06 Sukalde zerbitzua

Sukalde zerbitzuaren gastua 375.000 eurotakoa izango dela kalkulatu dugu, 2016ko bilakaerari erreparatuta.

III. eta VIII. Kapituluek ez dute merezi aipamen berezirik.



DIRU-SARREREN AURREKONTUA

2017ko urtealdirako diru-sarrereren aurrekontua guztira 3.401.526,21 €koa da.

Iturbide Egoitza nagusiki hiru bide hauen bitartez finantzatzen da: erabiltzaileen ekarpenak (autonomoak, mendekoak eta mendekotasun handikoak), GFAREN diru-laguntzak eta Arrasateko Udalak egindako ekarpena.

III. Kapitulu

Kontu-saila: 2-09-00-340-000 00-04 Egoiliar autonomoen kuotak

2017an ere Foru Aldundiak gelditzen diren autonomoen plazen finantzaketaz arduratuko da.

Kontu-saila: 2-09-00-340-000 01-04 Mendekoen eta mendekotasun handikoen kuotak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Iturbide Egoitzaren artean sinatutako Hitzarmenean jasotako sistema da mendeko eta mendeko handien kuotak zehazteko modua.

Plaza horientzako hitzarmeneko gehieneko prezioan sartuta dago zer ekarpen egin behar duen pertsona erabiltzaileak. Horretarako, 15/2015 Foru Dekretua ezarri du GFAk, eta hor datoz horrelako erabiltzaileen ekarpenak kalkulatzeko arauak.

Hori azaldu eta gero, hortik atera daiteke mendekotasuneko eta mendekotasun handiko plazak kontzertazioko gehieneko prezioez finantzatu litezkeela. Hala ere, hitzarmeneko gehieneko prezioa, 2005az geroztik izan duen gehitze nabarmena gorabehera, oraindik ere ez da nahikoa Iturbideko plaza horien kostu erreala finantzatzeko. Horrek, Udalak hartu ditzakeen ekimenen kalterik gabe, behartu egiten du Udalaren diru-laguntzen kontu-sailean mendekotasuneko eta mendekotasun handiko pertsonentzako zerbitzuak emateak sortzen dituen defizita ere sartzera.

2017ko tarifei dagokionez, ez dugu ezagutzen igoeraren zenbatekoa. Edozelan ere, aurreikuspenetan 2016ko egoera hartu dugu oinarri gisa.

Kontu-saila: 2-09-00-396-000 00-01 Tutoretzapeko etxetako gastua itzultzea

Iturbide Egoitzak Udalaren Tutoretzapeko etxebizitza zerbitzuari (sukaldea eta garbiketa) emango dizkion zerbitzuen truke egoitzak jasotzen duen kopurua da, eta 2017 urtean 25.000 €-ko diru sarrera aurreikusten dugu.



IV. Kapituluua – Transferentzia Arruntak

Kontu-saila: 2-09-00-420-000 00-01 Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren diru-laguntza

Lehenago adierazitakoarekin bat, kontzertazioko gehieneko prezioen sistemak esan nahi du, pertsona erabiltzaileak eta GFAk egingo duten ekarpena izango dela erabiltzailearen aportazioaren eta gehieneko prezioaren arteko aldea. Horrela, ekarpen bi horiek batu eta gehieneko prezioa izango dugu.

Egoiliarren ekarpenekin egin dugun moduan, planteamendu eta kalkulu berdinekin, 2016an izan diren Aldundiko sarrerak oinarritzat hartuz, Aldundiaren ekarpena 1.870.000 eurotako izango dela uste dugu, baina beti ere guzti honen inguruko informazio eza azpimarratuz.

Kontu-saila: 2-09-00-420-000 00-03 Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren ekarpen ezohikoa.

2014an, 2015ean eta 2016an PMAD planean jasoriko egutegiaren arabera, Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru ekarpena %15 murriztuz joan den neurrian, udal egoitzaren defizita konpentsatzera bideratuta Foru Aldundiak ekarpen ezohikoak egin ditu. 2017ra begira aldundiaren irizpidea berdina izaten jarraituko du, eta beraz, dirusarrera horren aurreikuspena jasotzen da.

Kontu-saila: 2-09-00-430-000 00-01 Udalaren diru-laguntza (Defizita)

Aurrekontu kontu-sail honetan agertzen da Arrasateko Udalak zuzenean egiten duen aportazio ekonomikoa Iturbide Egoitzaren alde, gastuen eta diru sarreren aurrekontua orekatzeko; hortaz, erabiltzaileen, GFAREN eta finantzaketako soberakin iturrien gastuak eta diru sarrerak balioetsi eta gero, Udalaren ekarpenaz finantzatzen da alde hori.

2016rako aurreikusitako gastuak eta sarrerak ikusita, aurreikusi dugu 18.701,23 €koa izatea Udalak egin beharko duen diru sarrera, zerbitzuak sortzen duen defizita estaltzeko.



ITURBIDE EGOITZA

Arrasateko Udalaren erakunde autonomoa

2017ko aurrekontua betetzeko arauak

LEHEN TITULUA – AURREKONTUA ONARTZEARI BURUZ

LEHEN ARTIKULUA - ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA

1. Arrasateko Udalaren Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren 2017ko aurrekontua da 3.401.526,21 €koa, eta gastuetan nahiz diru-sarreretan berdindurik aurkeztu dira.
2. Aurrekontuaren aplikapen aldia: 2017ko urtealdi ekonomikoa eta, egonez gero, haren luzamendua.

BIGARREN TITULUA - GESTIO EKONOMIKOARI BURUZ

BIGARREN ARTIKULUA - GESTIO EKONOMIKOAREN ESKUMENARI BURUZ

1. Gastu eta diru sarreraren aurrekontuak izango dira Erakunde Autonomoen Ekonomia Legea 2016ko urtealdirako, eta Erakundeari dagokio aurrekontuan sartutako kontsignazioen administrazioa.
2. Alkate-udalburua eta haren ordeza, Erakunde Autonomoaren batzordeburua, ordainketen agindu emaileak direnez, Zuzendaritza Batzordearekin ados egonik eta zuzendari kudeatzailearen laguntza eta aholkularitza, aurrekontua bete dadin arduratuko dira, eta horietan ezarritakoa Zerbitzuek ere egin eta bete dezaten, beti ere, indarrean dauden legezko xedapenen, arauon eta Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak hartutako edo har litzakeen akordioen arabera.

HIRUGARREN ARTIKULUA -AURREKONTUAREN KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

1. Hilero aurrekontuaren exekuzio egoeraren eta Erakunde Autonomoaren ekonomia eta finantza egoeraren berri emango zaie batzordekide guztiei.



HIRUGARREN TITULUA - GASTUA ONARTZEARI ETA ORDAINTZEKO AGINDUARI BURUZ

LAUGARREN ARTIKULUA - GASTUAREN KUDEAKETA FASEAK

Fase hauetan egingo da Erakunde Autonomoen gastuen aurrekontuaren gestioa:

a)	Gastuaren baimena	A
b)	Gastuaren erabilera	D
c)	Obligazioaren errekonozimendua	O
d)	Ordaintzeko agindua	P

A) Gastuaren baimena - Gastu bat egitea erabakitzen duen egintza da, kopuru zehatz edo gutxi gorabeherako batez; horretarako aurrekontu kreditu baten guztia edo zatia erreserbatzen da.

Gastua ontzat emateko Organo eskudunak, akordio horretan derrigorrez adierazi behar ditu gastuaren kopuru zehatza edo balioetsia eta zein kontu-sailek finantzatu behar duen.

B) Gastuaren erabilera - Gastua egitea erabakitzen duen egintza da, aldez aurretik baimendua, kopuru zehatz batez eta hirugarren baten edo hornitzaile baten aurrean.

Gastuaren espedientearen hasieran kopurua zehatz-mehatz eta hirugarren horren edo jasotzailearen izena zein den dakienean Erakundeak, fase bakarrean "AD" pilatuko dira baimen eta erabilera faseak.

Erabileraren kopurua eta Baimenarena bat ez badatoz, eta Zerbitzu edo Batzordetik bestelakorik planteatu ezean, erabileraren kopurua izango da udal kontabilitatean ezarri behar dena, hasieran baimendutako kopurua eguneratuz, kontabilitateko ohartarazpenaren bidez.

C) Obligazioaren errekonozimendua - Entitateari eska dakioken kreditu bat dagoela adierazten duen egintza da, baimendua eta konpromisoa hartutako gastu batetik datorren kreditua.

Salbuespenez eta gastuaren izaeratik datorrelarik, fase bakar batean pilatu ahal izango dira baimena, erabilera eta obligazioaren errekonozimendua.

D) Ordaintzeko agindua - Ordainketen agindu emaileak, errekonozitu eta likidatutako obligazio baten arabera, ordaintzeko agindua ematen duen egintza da.



BOSGARREN ARTIKULUA - GASTUAK ONARTZEKO ESKUMENAK

1. Aurrekontuan kontsignatuta dauden kredituen eta 2017ko urtealdia igaro bitartean tramitatu daitezkeen kreditu aldaketen ondoriozko kredituen mugen barnean, ezin izango da onartu inolako gasturik aurrez horretarako agindua eman gabe, zenbatekoaren arabera, organo edo pertsona hauetarikoren batek:

- Gizarte Langileak
- Erizain Koordinatzaileak
- Zuzendari-kudeatzaileak
- Erakunde Autonomoaren Lehendakariak
- Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak

2. Gastua nori dagokion onartzea:

a) Gizarte Langileak, gehienez ere 300 euro, bere eskuduntzako eremuan dauden gastu arruntetan.

b) Erizain Koordinatzaileak, gehienez ere 300 euro, bere eskuduntzako eremuan dauden gastu arruntetan.

c) Zuzendari kudeatzaileari, gehienez ere 300 euro, gastu arruntetan.

d) Erakunde Autonomoaren Lehendakariari, gehienez ere 6.000 euro, gastu arruntetan.

e) Zuzendaritza Batzordeari, 6.001 eurotik gorako gastu arruntetan.

f) Presa, larrialdi eta antzeko egoeretan, Erakunde Autonomoaren Udalburuak edozein kopurutako gastuak baimendu ahal izango ditu, eta gero Zuzendaritza Batzordeari emango dio horren berri, jakinaren gainean egon dadin.

3. Eduki ekonomikoko obligazioak sor ditzakeen ekintza guztien berri emango du Erakundearen zuzendari-kudeatzaileak, 300 euro artekoak izan ezik, eta balioa izateko, nahitaez, hauek adierazi behar ditu: gastua zenbatekoa den, zertarako den eta hura deskribatu, aurrekontuko kontu-sailen arabera.

300 euro arteko gastuek ez dute aurrez fiskalizazio beharrik eta eskaera txartelaren bidez izapidetu edo tramitatuko dira; betiere, gastua zenbatekoa den, zertarako den eta deskripzioa agertu behar ditu, aurrekontuko kontu-sailen arabera.



4. Ezarritako legezko aginduetara egokituko dira kontratazio formulak, eta zuzeneko adjudikazioak egiteko gutxienez hiru eskaintza izan behar dira gastua egiteko, 6.000 euro artekoetan, non-eta ez den izango beharrezkoa baldintza hori betetzea.

5. Ez dute baliorik izango, horretarako ordaintzeko behar hainbat krediturik egon gabe, gastuak onartu, zerbitzu berriak sortu, edo lehendik datozenak gehitzen dituzten akordioek.

SEIGARREN ARTIKULUA – ORDAINKETA AGINTZEA

1. Aurrez Erakunde Autonomoaren zuzendari-kudeatzaileak kontu hartu eta baimendurik, gehiagoko izapiderik gabe, Erakunde Autonomoaren batzordeburuak zuzenean igorpendu ahal izango ditu hauei buruzko ordainketak:

- Pertsona edo entitate jakinen izenean aurrekontatutako kopuruak, edo Zerbitzu jakin batzuetarako berariaz kontsignatuak eta zehatz-mehatz aurrekontuan pentsatutakoak. Atal honetan sartzen dira indarrean dauden kontratuen arabera urteko prezioa zehatza denean eta gastua beraz onartua dagoenean (garbiketa, sukaldeko zerbitzu osoa, etab.), zein kontratuaren prezioa zehaztu gabe dagoenean ere, orduko prezioa jasotzen delako kontratuaren prezioan (Klinika laguntzaileen zerbitzuaren kontratua). Azken kasu honetan, klinika laguntzaile zerbitzuaren arduradunaren oniritzia ere beharko du aurretiaz.
- Pertsonalaren nominak eta hartzekoak, Erakunde Autonomoaren zuzendari-kudeatzailearen zerbitzu-eginkizunaren ziurtagiriaz
- Kontribuzioa eta zergak
- Iragarkiak eta harpidetzak
- Telefono zerbitzua
- Ordezkaritza gastuak
- Gizarte Segurantzako kuotak
- Erakundeak sinatutako aseguru-kontratuei dagozkien polizak
- 3.000 euro arteko gastu arruntak, eskaintako zerbitzuari buruz, aurrez behar duen oniritziarekin
- Berokuntza sistemarako eta antzekoetarako erregaia erostea, edozein izanik zenbatekoa

2. Ordaintzeko, baldintza hauek bete behar dituzte gainerako gastuek:



- a) Langileek onestea zerbitzua edo hornidura jaso dutela eta horiekin ados daudela.
 - b) Erakunde Autonomoaren zuzendari-kudeatzaileak aldiro-aldiro aurkezten duen faktura zerrendan sartzea, Zuzendaritza Batzordeak aztertu eta onar dezan.
3. Erakunde Autonomoak hornidura eta inbertsioak egiteagatik eska dakiozkeen obligazioak uztailaren 5eko 15/2010 Legeak zehazturiko epeen arabera ordainduko ditu.

LAUGARREN TITULUA - KREDITUEN ERREGIMEN OROKORRARI BURUZ

ZAZPIGARREN ARTIKULUA – KONTSIGNAZIOEN, LOTURA MAILEN IZAERARI BURUZ

1. Udal obligazioen gehienezko muga egiten dute gastuen egoera orriko kontsignazioek; aurrekontuan sartuta egoteak ez du ezelako eskubiderik ematen, eta zerbitzu bakoitzerako ezinbestekoa den kopurukoak izan behar dira kontsignazio horiek, kreditua egote hutsak ez duelarik gastua egiteko baimena ematen, behar-beharrezkoa ez bada, behintzat.
2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, badira hartu beharreko udal obligazioen gehienezko muga ez daukaten hainbat kontu-sail.
 - a) Pertsonal gastuetarako kredituak (Lehen kapitulua). Egin beharreko gastuen gehienezko muga da kapituluaren kontsignazio osoa, eta aurrekontu kontu-sail bakoitzaren kontsignazioak gaindu ahal izango dira kapituluaren kontsignazio osoa gainditu gabe, Zuzendaritza Batzordearen akordioen ondorioz (ordainsariak gehitzea, erregimen laborala aldatzea plantilla erregularizatu delako, pertsonala plantillan sartzea,) aurreko kredituari buruz gastu handiagoa izanez gero.
 - b) Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko kredituak (Bigarren kapitulua). Egin beharreko gastuen gehienezko muga da kapituluaren kontsignazio osoa, eta aurrekontuaren kontusail bakoitzaren kontsignazioak gainditu ahal izango dira kapituluaren kontsignazio osoa gainditu gabe, baldin eta Zuzendaritza Batzordearen akordioen ondorioz ezarritako kredituari buruz gastua haundiagoa izanez gero.
3. Udal aurrekontuen gutxi gorabeherako kalkulua da sarrerren kontsignazioa eta ezelako mugarik gabe egin daiteke.



ZORTZIGARREN ARTIKULUA – KREDITU TRANSFERENTZIAK

1. Batetik bestera transferitu ahal izango dira aurrekontuko kontu-sailetarako ontzat eman diren dotazioak, arau hauen arabera:

a) Pertsonal gastuetarako kredituak (I. kapitulua)

Kapitulu bereko kontrako zentzuzko desbiderapenak dituzten kontu-sailak finantzatu ahal izango dituzte Kapitulu honetan sortutako aurrezkiek.

Soberakinak transferitzeko aukera hori ere kontusail berria sortzeari aplikatu dakiok, beharrezkoa izanez gero ordezkatzeko, baja, lan-araubidea aldatzea eta abarren ondorioz.

Halaber, kapitulu honetan izan litezkeen soberakinak beste kapitulu batzuetako desbideraketa negatiboak finantzatzeko erabili ahal izango dira.

b) Ondasun Arrunt eta Zerbitzuak erosteko kredituak (II. kapitulua)

Arau hauetako zazpigarren artikuluan, 2.zenbakian, adierazitako kredituez gain, horien artean libre konpentsatu ahal izango diren kredituak, izaten diren soberakinak hauek finantzatzeko erabili ahal izango dira:

- Kapitulu honetako beste kontusail batzuen desbideraketa negatiboak
- Gehigarri kalifikatutako kredituak
- Gastuen aurrekontuaren beste kapitulu batzuen desbideraketa negatiboak

2. Zuzendaritza Batzordeak onartu behar ditu, a) eta b) ataletan aurreikusitako kredituen transferentziak, Erakunde Autonomoaren zuzendari-kudeatzailearen proposamenez, hasierako aurreikuspenaren aldean, kontu-sailaren desbideraketa osoak % 25 gainditzen ez badu; edo portzentaje hori gaindituz gero ere, 4.500 euro artekoa bada desbideratutako kopurua.

Desbideraketa portzentaje hori gaindituz gero eta 4.501 €-tik gorakoa izango balitz transferitu beharreko kopurua, Zuzendaritza Batzordearen proposamenez eta aurrez Ogasun batzordeak informazioa eman eta gero, Udalaren Gobernu Batzordea izango litzateke aldaketa onartzeko Organo eskuduna.

3. Hiruhilero helaraziko zaio Udalari, kreditu transferentziaren bidez Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Batzordeak onartutako kreditu aldaketen zerrenda bat.



BEDERATZIGARREN ARTIKULUA - KREDITU GEHIGARRIAK ETA FINANTZAKETA

1. Hurrengo zenbakian ezarritako formalitateak aurrez bete ondoren kopurua gehi dezaketen kontu-sailak dira kreditu gehigarritzat jotzen direnak:

- Langileen aurrerakinak ordaintzeko diren kredituak, eta horiek finantzatuko dira langileen aurrerakinen itzulera izeneko diru-sarreraren kontu-sailaren kontura.

- Gehigarriak izango dira aplikazio espezifikoak duten sarrerekin finantzatzen diren gastuen aurrekontuko kredituak (diru-laguntzak eta abar).

- Erabaki judizialen ondorioz sortzen diren obligazioak ordaintzeko diren kredituak.

2. Zuzendaritza Batzordeak onartuko du gehigarri kalifikatutako kreditu baten kontsignazio igoera, zuzendari kudeatzailearen proposamenez, eta gehitzearen kopurua eta finantzatzen duen baliabidea azalduko ditu.

Hiruhilero helaraziko zaio Udalari Zuzendaritza Batzordeak onartutako kreditu gehigarrien zerrenda.

BOSGARREN TITULUA – LANGILEEN KREDITUEI BURUZ

HAMARGARREN ARTIKULUA – LANGILEEN ORDAINKETEI BURUZ

Erakunde Autonomoaren zerbitzuan dagoen Pertsonalaren urteko ordainsari osoak interesatuek lortzen duten akordioaren arabera gehituko dira.

HAMAIKAGARREN ARTIKULUA – LANGILE KONTRATUDUNAK

Gaixotasun, ikastaro edo lan kargak direla-eta ordezkapenen ondorioz behar diren aldi baterako kontratazioak Zuzendaritza Batzordeak onartuko ditu, zuzendari kudeatzaileak proposatuta.

Presakako arrazoiek hala eskatzen dutenean, Erakunde Autonomoaren batzordeburua izango da kontratazioa ontzat emango duena, eta gero Zuzendaritza Batzordeari emango zaio horren berri.



SEIGARREN TITULUA – AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZ

HAMABIGARREN ARTIKULUA – AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZ

2017ko abenduaren 31n itxiko da 2017ko aurrekontua, ordura arte kitatutako eskubide eta aitortutako obligazioei buruz.

Erakunde Autonomoaren batzordeburuaren proposamenez, zuzendari kudeatzailearen aholkuarekin, urtealdiko aurrekontuaren hasierako likidazioa ontzat emateko organo aginpideduna izango da Zuzendaritza Batzordea.

Udalari bidaliko zaio likidazio hori, Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko onar dezan.

Halaber, kreditu soberakinak barne hartzea erabakitzeko organo aginpideduna izango da Zuzendaritza Batzordea; lehendik errekonozitutako obligazioak betetzera beharturik ez daudenean soberakin horiek, 4/91 Foru Arauaren 32.1 artikuluan aurreikusitako kasuetarako, hori guztia inkorporazio horiek finantzatzeko nahiko baliabide izatera baldintzaturik.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Oinarri edo arau hauetan pentsatu ez denari buruz, indarrean dagoen legerian ezarritakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Arauok eragina izango dute 2017 urtean eta horren luzamenduan, azken hori gertatuz gero, eta indarrean jarraituko dute Udalak arau horiek aldatu edo indargabetzea onartzen ez duen arte.

ITURBIDE EGOITZA AURREKONTUA 2017 (Gastuak)

PARTIDA	KONTZEPTUA	2017
1-09-00-120-231-90-00	Oinarrizko ordainketak	187.936,13
1-09-00-121-231-90-00	Ordainketa osagarriak	340.524,01
1-09-00-130-231-90-00	Aldi baterako langileak	16.678,99
1-09-00-160-231-90-01	Gizarte Segurantzak	146.441,35
1-09-00-160-231-90-04	Elkarkidetzak	13.645,73
1-09-00-162-231-90-05	Langileen bizi aseguruak	5.600
1-09-XX-XXX-XXX-XX-XX	Erreserba funtsa soldaten errebisiorako	7.100
GUZTIRA	Kapitulu I	717.926,21

1-09-00-211-231-90-00	Kontserbazioa eta mantenimendua	21.000
1-09-00-220-231-90-00	Bulego materiala	3.500
1-09-00-221-231-90-01	Argindarra eta gasa	98.000
1-09-00-221-231-90-02	Ura, zaborra eta estolderia	20.000
1-09-00-221-231-90-05	Pertsonalaren jantziak	500
1-09-00-221-231-90-08	Desfinantzatutako botikak	29.000
1-09-00-221-231-90-10	Material berezia	19.000
1-09-00-221-231-90-11	Tresneria eta erramnitak	2.500
1-09-00-222-231-90-00	Telefonoa	1.000
1-09-00-224-231-90-00	Aseguruak	9.000
1-09-00-226-231-90-06	Jarduera okupazionalak	11.500
1-09-00-227-231-90-01	Garbiketarako materiala	50.000
1-09-00-227-231-90-02	Contrato Apoyo Psicosocial	15.000
1-09-00-221-231-90-03	Kontratuta laguntza psikosozialerako	90.000
1-09-00-227-231-90-04	Ikuztegia	1.435.000
1-09-00-227-231-90-05	Kontratua kilnika laguntzaileak	365.000
1-09-00-227-231-90-06	Kontratua garbiketa	375.000
1-09-00-227-231-90-07	Kontratua sukaldea	1.600
1-09-00-227-231-90-99	Kontratua Harrera	100.000
1-09-00-227-231-90-01	Beste kontratu batzuk	25.000
1-09-00-230-231-90-00	Dietak eta bida ordainak	600
1-09-00-230-231-90-01	Pertsonalaren ikastaroak	800
GUZTIRA	Kapitulu II	2.673.000,00

1-09-00-369-412-00-00	Finantza gastuak	600
GUZTIRA	Kapitulu III	600,00

1-09-00-833-412-00-01	Pertsonalari diru-aurrerapenak	10000
GUZTIRA	Kapitulu VIII	10.000,00

GASTUAK GUZTIRA		3.401.526,21
------------------------	--	---------------------

ITURBIDE EGOITZA AURREKONTUA 2017 (Sarrerak)

Partida	Kontzeptua	2017
2-09-00-340-000-00-04	Egoiliarren kuotak (autonomoak)	60.000
2-09-00-340-000-01-04	Egoiliarren kuotak (menpekoak)	1.320.000
2-09-00-340-002-00-04	Hainbat	500
2-09-00-380-000-00-04	Botiken ordainketak jasotzea	29.000
2-09-00-396-000-00-01	Etxebizitza babestuen ekarpenak	25.000
GUZTIRA	Kapítulo III	1.434.500,00
2-09-00-420-000-00-01	Gipuzkoako Foru Aldundiko ekarpena	1.870.000
2-09-00-420-000-00-03	Foru Aldundiko ekarpen ezohikoa	68.299,98
2-09-00-430-000-00-01	Udalaren dirulaguntza	18.701,23
GUZTIRA	Kapítulo IV	1957001,21
2-09-00-560-000 00-01	Finantza sarrerak	25
GUZTIRA	Kapítulo V	25
2-09-00-780-000-00-01	Doaintzak	0
GUZTIRA	Kapítulo VII	0
2-09-00-833-000-00-01	Diru-aurrerapenen itzulketak	10.000
GUZTIRA	Kapítulo VIII	10.000,00
SARRERAK GUZTIAK		3.401.526,21

